	<b>11:00-23:00</b> Polifemoren begia Kulturen ataria	<b>LIQUID DOCS</b>	LiquidMaps.org	Instalazioa, WIP proiektua		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>GROUP HOLOMATTER</b> Italia, Alemania, Korea	Sisybot	Instalazioa		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>SRA. POLAROISKA &amp; ELSSIE ANSAREO</b> Euskadi	3, 2, 1 shout, oihu egin, grita	Argazkigintza / Bideo Sorkuntza		Sarrera dohainik
	<b>18:00-19:30</b> Kulturen ataria	<b>DANSE CARPE DIEM / EMMANUEL JOUTHE</b> Kanada	ÉCOUTE POUR VOIR	Dantza espe- rientziala/soloak	1h 30	Sarrera dohainik
	<b>19:00</b> Bastida aretoa	<b>AMANDA PIÑA &amp; DANIEL ZIMMERMANN</b> Austria, Amazona indigena, Euskadi	Austriako Mugimenduaren Gaien Ministerioaren aurkezpena, BMfB	Eki-laldi ofiziala	40'	8€ / 6€ ↴
	<b>20:00</b> Erakusketa aretoa	<b>MARIE-CAROLINE HOMINAL</b> Suitza	BAT	Dantza / Per- formancea	1h	8€ / 6€ ↴
	<b>21:30</b> Kulturen ataria	<b>CIE. NUNA / YOUNGSOON CHO JAQUET</b> Suitza, Korea	Pilze	Performancea	40'	Sarrera dohainik
<b>MAIATZAK 30</b>	<b>11:00-23:00</b> Kulturen ataria	<b>PLASTIQUE FANTASTIQUE</b> Italia, Alemania	Polifemoren begia	Arkitektura iragankorra		Sarrera dohainik
	<b>11:00-23:00</b> Polifemoren begia Kulturen ataria	<b>LIQUID DOCS</b>	LiquidMaps.org	Instalazioa, WIP proiektua		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>GROUP HOLOMATTER</b> Italia, Alemania, Korea	Sisybot	Instalazioa		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>SRA. POLAROISKA &amp; ELSSIE ANSAREO</b> Euskadi	3, 2, 1 shout, oihu egin, grita	Argazkigintza / Bideo Sorkuntza		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>JORDI GALÍ</b> Frantzia	T	Instalazioa		Sarrera dohainik
	<b>17:00 – 21:20</b> Zenbait espazio	<b>MARIE-CAROLINE HOMINAL</b> Suitza	Le triomphe de la renommée	Dantza / Performancea	20'	4€ / 3€ ↴
	<b>18:00-19:30</b> Kulturen ataria	<b>DANSE CARPE DIEM / EMMANUEL JOUTHE</b> Kanada	ÉCOUTE POUR VOIR	Dantza espe- rientziala/soloak	1h 30	Sarrera dohainik
	<b>18:00</b> Erakusketa aretoa	<b>CINDY VAN ACKER</b> Suitza, Belgika	Helder	Dantza	27'	8€ / 6€ ↴
	<b>18:30</b> Erakusketa aretoa	<b>JORDI GALÍ</b> Frantzia	T	Performancea	50'	8€ / 6€ ↴
	<b>20:00</b> Auditoriuma	<b>ANA BORRALHO &amp; JOÃO GALANTE</b> Portugal	Atlas Bilbao	Performancea / Antzerkia	70'	10€ / 8€ ↴
	<b>21:30</b> Kulturen ataria	<b>ALESSANDRO SCIARRONI</b> Italia	UNTITLED_I will be there when you die	Dantza	50'	Sarrera dohainik
	<b>00:00 / 01:00</b> Alhóndiga Bilbao	<b>XABIER ERKIZIA &amp; AINARA LEGARDON</b> Euskadi	Soinu-paseoa. Isiltasunaren forma berriak	Soinu-perfor- mancea	50'	8€ / 6€ ↴
<b>MAIATZAK 31</b>	<b>11:00-23:00</b> Kulturen ataria	<b>PLASTIQUE FANTASTIQUE</b> Italia, Alemania	Polifemoren begia	Arkitektura iragankorra		Sarrera dohainik
	<b>11:00-23:00</b> Polifemoren begia Kulturen ataria	<b>LIQUID DOCS</b>	LiquidMaps.org	Instalazioa, WIP proiektua		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>GROUP HOLOMATTER</b> Italia, Alemania, Korea	Sisybot	Instalazioa		Sarrera dohainik
	<b>11:00-21:00</b> Erakusketa aretoa	<b>SRA. POLAROISKA &amp; ELSSIE ANSAREO</b> Euskadi	3, 2, 1 shout, oihu egin, grita	Argazkigintza / Bideo Sorkuntza		Sarrera dohainik
	<b>17:00 – 21:20</b> Zenbait espazio	<b>MARIE-CAROLINE HOMINAL</b> Suitza	Le triomphe de la renommée	Dantza / Performancea	20'	4€ / 3€ ↴
	<b>17:30</b> CAC1	<b>ION MUNDUATE</b> Euskadi	Translation	Aurkezpen publikoa	60'	Entrada libre
	<b>18:00-19:30</b> Kulturen ataria	<b>DANSE CARPE DIEM / EMMANUEL JOUTHE</b> Kanada	ÉCOUTE POUR VOIR	Dantza espe- rientziala/soloak	1h 30	Sarrera dohainik
	<b>18:30</b> Erakusketa aretoa	<b>JORDI GALÍ</b> Frantzia	T	Performancea	50'	8€ / 6€ ↴
	<b>18:00</b> Erakusketa aretoa	<b>CINDY VAN ACKER</b> Suitza, Belgika	Monolog	Dantza	27'	8€ / 6€ ↴
	<b>21:00</b> JOZZ	<b>GUILLAUME MARIE &amp; TAZCORP</b> Frantzia	Edging	Dantza	1h	8€ / 6€ ↴

# 3·2·1 IRRATIA

Topaketaren irrati ofiziala, 3, 2, 1 topaketaren gaineko informazioa nahiz artista eta partehartzaileei egindako elkarrizketak emitituko dituena.

**MAIATZAK 29, 30 ETA 31**

17:00-22:00

Laborategi Aretoa.

Kulturen Ataria

Euskera, gaztelera eta ingelesa



## '3·2·1 shout, oiuhu egin, grita'

SRA. POLAROISKA & ELSSIE ANSAREO

Euskadi

**MAIATZAK 29, 30  
ETA 31**

11:00 - 21:00

Erakusketa Aretoa

-2 solairua

Sarrera dohainik

'3, 2, 1 shout, oiuhu egin, grita' elkarlanaren emaitza da, eta, irudi baten sorkuntza baino gehiago, 3, 2, 1en baitako sorkuntza lana da. 3 modutara aurkezten dute: bideo batean, irudi batean eta instalazio batean. Sra. Polaroiska & Elssie Ansareo artistek animalia izaerara, katarsira, jatorrira itzultzea proposatzen dute; guztion ezaugarri komuna den alderdi basati horrekiko topaketa. Performatibitate sozialak gizakiari ukatzen dion barne basapitzia horri dei egiten dio. '3, 2, 1 shout, oiuhu egin, grita' lanean, pieza bat planteatzen dute, zeinetan hiru pertsonak ulu isil bat egiten duten, gorputza erabiliz eguneroko eta eszenako neurritasunaren kontrako errebeldia modura.

Elssie Ansareo Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako lizentziaduna da, eta unibertsitate horretan egin zituen, halaber, irudi teknologikoko doktoregoko ikastaroak eta lortu zuen Ikasketa Aurreratuetakoko diploma, 'Autorretrato fotográfico aplicado a una práctica artística' proiektuari esker. Bakarkako zenbait erakusketa egin ditu, eta talde erakusketa askotan parte hartu, New Yorken, Madrilen, Málagaen eta Santanderren, besteak beste.

Alaitz Arenzana eta Maria Ibarretxe 'Sra Polaroiska en sillón de taller' lanaren sortzaileak dira. Lehena Ikus-entzunezkoetako lizentziaduna da, eta bigarrena, berriz, Arte Dramatikoko diplomaduna, eta, bien arteko elkarlanari esker, bi mundu horiek tarteko mundu batean topatzea ahalbidetu dute. Dantzaren eta arte eszenikoen esparruko ikerkuntza lantzen duen Ruemaniak kolektiboko kideak dira biak.

**ESPAZIO PROFESIONALA**

Erabilera Askotarako Aretoa. Kulturen Ataria



Gilles Vidal©

## 'Edging'

GUILLAUME MARIE & TAZCORP

Frantzia  
Dantza

MAIATZAK 31

21:00

60'

Jarduera osagarrietarako  
zentroa 2  
8€ / 6€

Edging: sexu teknika, klimaxera iritsi aurretik estimulazioa kontzienteki etetea datzana, gorenera iristeko unea atzeratzeko xedez.

Hikikomori ('barnerantz jo, gordeta egon'): japoniar hitza, zeinaren bidez izendatzen baita bizimodu sozialetik aldantzen diren eta sarritan erabateko bakartasun eta ezkutatzeko mailak bilatzen dituzten gazte bakartien fenomeno.

Laser (Light Amplification by Stimulated Emission of Radiation): argia amplifikatzea, irradiazioaren igorpen estimulatua bidez.

'Edging' eromen kolektiboari buruzko erritual pertsonal txikia da.

2005az geroztik, Tazcorp taldearen proiektu artistikoak garatzen dihardu Guillaume Mariek. Taldea Cédéric Debeuf moda diseinatzailearekiko (Dior, Lacroix...) eta hainbat diziplinatako (dantza, performancea, filosofia, makillajea, musika, ikus-entzunezkoak eta antzerkia) nazioarteko artistarekiko lankidetzatik sortua da. Haren lanak zailtasun jartzen du gizakia, haren gizarte-egitura, fantasiak eta zentzugabekeriak, inspirazio iturri gisa hartuta albiste nagusiak eta politika poesiaren, antzerki bisualaren eta koreografiaren bidez adierazteko modua.

### FITXA ARTISTIKOA

SORKUNTZA: Guillaume Marie, Igor Dobricic & KK Null  
INTERPRETAZIOA: Suet Wan Tsang & Guillaume Marie  
MUSIKA: KK Null  
ARGIZTAPENA: Abigail Fowler  
ZUZENDARITZA TEKNIKOA: Stéphane Monteiro



Vanessa Forget ©

MAIATZAK 29, 30 ETA 31

18:00

90'

Kulturen Ataria  
Sarrera dohainik

## 'ÉCOUTE POUR VOIR'

DANSE CARPE DIEM / EMMANUEL JOUTHE

Quebec, Kanada  
Dantza esperientziala. Soloak

'ÉCOUTE POUR VOIR' ('Entzun, ikusteko') lanak zenbait solo proposatzen ditu, espazioan barrena eta aldi berean dantzatzekoak. iPod bati lotutako entzungailuak jantzita, dantzariak eta ikusleak koreografia bat partekatzen dute, aurrez aurre, musikak irauten duen bitartean. Ikusleek interpretatzaile batetik bestera jo dezakete, askotariko dantza sorta esperimentatzeko moduan, edo mugitzen ari den talde koloretuari urrutetik behatuz diberti daitezke, eta beren nahi eta zaletasunen arabera gehien erakartzen dituen dantza aukeratu.

Danse Carpe Diem / Emmanuel Jouthe taldearentzat, gizabanakoarekin harremanetan murgiltzeko desira sakona da sorkuntzaren jatorria, eta, hortaz, taldearen eta publikoaren arteko erlazioa indartzeko aukera ematen duten giza trukeetan oinarritzen dute beren arte koreografikoa, bide horretan ikuspegi berri eta askotarikoak eskainiz, artistikoki oparoak eta, hala ere, irisgarriak. Dantza demokratizatzea dute helburu.

### FITXA ARTISTIKOA

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA: Emmanuel Jouthe eta Laurence Fournier Campeau

KOREOGRAFIA: Emmanuel Jouthe eta dantzariak

DANSE CARPE DIEM/EMMANUEL JOUTHEKO DANTZARIAK: Raphaëlle Perreault eta Laurence Fournier Campeau

Danse Carpe Diem/Emmanuel Jouthe Circuit-Est koreografia zentzoko kidea da. ÉCOUTE POUR VOIR lanak honako erakunde hauen diru-laguntza jaso du: Conseil des Arts du Canada, Conseil des arts et des lettres de Québec, Conseil des arts de Montréal eta Emploi-Québec. Laguntza eman diote, halaber, Marta Oliveres Managementek eta Bartzelonako Bureau du Québécois.



Salomé Sagüillo©

## 'Soinu-paseoa. Isiltasunaren forma berriak'

XABIER ERKIZIA & AINARA LEGARDON

Euskadi  
Soinu performancea

Xabier Erkizia eta Ainara LeGardon soinu artistek eraikinean barrenako ibilbidea proposatzen digute, eraikina itxita dagoela. Lo dauden eraikinen sonoritateak, isiluneez eta musikek igortzearen eta hartzearen arteko jolasa planteatzen digute, fikzioaren eta errealtatearen arteko jolasa.

Ainara LeGardon (Bilbo, 1976)

Performerra, gitarrista, abeslaria eta musikagilea, bi hamarkadatik gora daramatza musika egiten. Rockaren arloko lanez gainera, 'site specific' sorkuntzaren inguruko proposamen bat garatzen ari da, esku hartzen duen espazioekin, haien historiarekin eta baldintza akustikoekin elkarreraginean jardunez. Inprobisazio asketik abiatuta garatzen du lan hori, bere ahotsa eta mugimendua harturik baliabide modura eta baliabide hori uztartuz espazioek beraiek eskaintzen dizkioten aukerekin.

Xabier Erkizia (Lesaka, 1975)

Soinu artista, irrati sortzailea, ekoizlea eta kazetaria. Haren lanaren ardatza da pertsona, soinu eta forma desberdinen arteko ikerkuntza, askotariko egoeretan, hala nola, soinu instalazioetan, musika grabazio eta konposizioetan, irrati lanetan, talde proiektuetan nahiz inprobisazio kolektiboetan, etab.

MAIATZAK 30

00:00 eta 01:00

50'

AlhóndigaBilbao

Gaztelania

8€ / ~~6€~~



## 'Translation'

ION MUNDUATE

Euskadi  
Tailerra, laborategia eta jendaurreko aurkezpena

Translation Ion Munduate egiten ari den ikerketa-proiektu baten izena da. Proiektua 3, 2, 1 topaketan gauzatuko da, hiru jarduera desberdinetan: tailer ireki gisa partekatutako esperientzia bat, hilaren 26tik 28ra bitartean; prozesu honi lotutako artistekin egingo den barneko lan-aldia, hilaren 28tik 31ra; eta esperientzia honen amaieran, hilaren 31n, gonbit egingo digu lan-espazio hau partekatuzera, ikerketa honetako materialekin egingo den topaketara.

Ikerketa honek asmo-gurutzaketa batean du abiapuntua, John Cage, Trisha Brown eta Joan Jonasen hiru performancek osatzen duten markoaren barruan artistak berak dituen interesen topaketatik abiatuta. Pieza horiek bir-bisitatzea; izan ere, kontua da ez zehaztasunez erreproduzitzea, ez eta ber-idaztea ere, idazketa edo konposizio ariketa bat izango balitz bezala. Eskuratze edo kopia bat ere ez da, baizik eta partitura zabal bat eratzea. Translation bat, ohar mota desberdinekin, eta elementu multzo batekin, horiek eskaintzen duten aniztasunean prozesu enpirikoa garatzeko.

Ion Munduate Donostian, Madrilen eta Parisen dantzan trebatutako artista da. 1994an Blanca Calvo koreografoarekin hasi zen lankidetzan, eta 1998az geroztik Mugatxoan proiektua zuzentzen dute elkarrekin. Beraien piezarik aipagarrienak honakoak dira: 'Lucía con zeta' (1999), 'Boj de largo (FlyBall)' (2000), 'Astra Tour' (2003-2004), 'BAT, Beautiful Animals Trying' (2006) eta 'Sin título, en colores' (2010).

TAILERRA

MAIATZAK 26, 27 ETA 28

10:00-15:00

Jarduera osagarrietarako zentroa 1

Gaztelania

60 € / ~~40€~~

Tailerrean izena emateko, CV laburra eta

interes-gutuna bidali behar dira helbide

honetara:

atencionalpublico@alhondigabilbao.com

LABORATEGIA

MAIATZAREN 28TIK 31RA

Jarduera Osagarrietarako Zentroa. 1

AURKEZPENA

MAIATZAK 31, LARUNBATA

17:30

60'

Jarduera Osagarrietarako Zentroa. 1

Sarrera dohainik



**'Pilze'**  
CIE. NUNA / YOUNGSOON CHO JAQUET

Suitza / Korea  
Performancea

MAIATZAK 29  
21:30  
40'  
Kulturen Ataria  
Sarrera dohainik

Naturak txanpinoi aniztasun ikusgarria du, ezin konta ahala txanpinoi mota biltzen ditu. Forma eta kolore liluragarrikoak, jateko apartak batzuk, izugarri pozoitsuak beste batzuk. Badira ia ikusezin direnak, eta, aldiz, itxura harrigarri eta ikusgarria dute beste batzuek. Baina diren motakoak direla ere, denek dute ezaugarri komun bat: ugaltzeko gaitasun izugarria. Etxetresna elektrikoek bezala: txanpinoien modura ugaltzen dira horiek ere gure etxeetan.

'Pilze' performancearekin, YoungSoon Cho Jaquetek parte hartzeko gonbita egiten dio ikusleari: ukitzeko, sentitzeko, entzuteko eta hainbat eta hainbat objektuekin elkarreraginean jarduteko gonbita, ordena berri eta ezezagunak sortzeari begira.

YoungSoon Cho Jaquet artista korearra da, sortzez, baina Suitzan bizi da orain dela hamar urte baino gehiago. Dantzaren hizkuntza baliatuz, unibertso poetiko bat iradokitzen du, honako 3 elementu hauek ardatz hartuta: ikuslearekiko jolasa, Asiako artearen eta Mendebaldeko artearen arteko lotura, eta oroitzenaren eta jatorriaren gaineko arreta. 2003. urtean, Cie. Nuna taldea sortu zuen, eta hamar bat ikuskizun landu ditu harekin.

**FITXA ARTISTIKOA**

PRODUKTOREAK: Cie. Nuna / YoungSoon Cho Jaquet  
KOPRODUKTOREAK: Stromereien Performance festival Zurich; Mousonturm Frankfurt  
KOREOGRAFIA ETA KONTZEPTUA: YoungSoon Cho Jaquet  
INTERPRETAZIOA: YoungSoon Cho Jaquet, Pauline Wassermann, Nicolas Leresche  
ESZENOGRAFIA: Serge Perret



**'Sisybot'**  
GROUP HOLOMATTER

Italia, Alemania, Korea  
Instalazioa, espazio pertzeptuala

MAIATZAK 29, 30 ETA 31  
11:00-21:00  
(Etenik gabe, ikuskizun bat dagoenean izan ezik)  
Erakusketa Aretoa. -2 solairua  
Sarrera dohainik

Group Holomatter fikziozko zientziatik datorren terminoa da, eta Berlinen bizi diren nazioarteko artisten diziplina anitzeko kolektibo bati ematen dio izena. Kolektiboa Marco Barotti, Marco Canevacci, Franz Höfner, Tim Schober, Markus Wüste eta Yena Youngek osatzen dute; artista horiek zenbait diziplinatatik datoz, besteak beste, musikatik, eskulturatik, diseinutik edota arkitekturatik. Artisten arabera, kasu honetan, terminoak errealitate bat simulatzeko aukerari egiten dio erreferentzia, hain zuzen ere, garbiketa adimenduneko sistema baten ikuspegitik irudikatuz: robot xurgailuak. Iaz 'Sisybot' jarri zuten ikusgai Berlingo Scotty Enterprises erakusketa gunean. Makinen adimena agerian jartzen duen instalazio espazio-pertzeptuala alegia. AlhóndigaBilbaoren erakusketa aretoan ikusgai jarritako mihisean, garbiketako sei Sisybot-ek zenbait patroiri jarraitzen diete, itxura batean zoriz. 'Sisybot'ek –Sisifo eta Robot hitzak elkartzearen emaitza– adimen artifizialari eta errealitate utopikoari buruzko gogoeta bultzatzen dute, eta gizarte-nortasunaren galerari egindako kritika gisa funtzionatzen dute.



Anaïs LLeixà©

'T'

JORDI GALÍ

Frantzia  
Instalazioa / Performancea

**INSTALAZIOA**

**MAIATZAK 30**  
**ETA 31**  
11:00-21:00

Erakusketa Aretoa.  
-2 solairua  
Sarrera dohainik

**PERFORMANCEA**

**MAIATZAK 30**  
18:30  
**MAIATZAK 31**  
19:00

Erakusketa Aretoa  
-2 solairua  
8€ /

Instalazio modura eta performance baten bidez, Jordi Galí ikuskizun bisual eta dantza ikuskizuna proposatzen dizkigu, eguneroko objektuetan oinarritua; sortzaileak, hain zuzen ere, objektu horien arima azalera ateratzen du, direnik eta objekturik xumeenak abiapuntu hartuta bada ere. Bere dantza ikerketa da, bilaketa. Inguruan baditugu, haiekin bizi gara, zergatik ez dantza egin gure eguneroko objektuen paisaia horrekin? 'T' dantza hurbildu egiten zaio eraikuntza lanari, artisauren, paletaren, eskultorearen keinuari, bat egiten du haiekin, nolabait; baina dantza izaten jarraitzen du, finean.

—  
**FITXA ARTISTIKOA**

SORKUNTZA ETA INTERPRETAZIOA: Jordi Galí  
PRODUKZIOA: Cie. Arrangement Provisoire  
KOPRODUKZIOA: CCN Rillieux-la-Pape / Cie. Maguy Marin (Lyon, Frantzia) Ramdam (Lyon, Frantzia) eta L'Animal a l'Esquena (Girona)



Österreichisches  
Bundesministerium für  
Bewegungsangelegenheiten (BMfB)

(Austriako Mugimenduaren Gaien Ministerio Federala)

Austria / Amazonia indigena / Euskadi  
Ekitaldi ofiziala

**MAIATZAK 29**

19:00

40'  
Bastida Aretoa. -2 solairua  
Gaztelania, jatorrizko  
hizkuntzak: ingelesa, alemanera  
eta zenbait amazoniar hizkuntza.  
8€ /

BMfB, Mugimenduaren Gaien Ministerio Federala, Austriako ministeriorik gazteena da, eta, orain arte, mota horretako bakarra munduan.

Ministerioa 2009ko ekainaren 8tik existitzen da gaur egun duen formarekin, eta gorputzek espazioan duten mugimendu librearen forma guztiak finantzatu, landu eta defendatzea da bere erantzukizuna. BMfBren egiteko nagusia mugimenduaren potentziala sustatzea da, kontzientziaren zabalkundearen bitarteko gisa. Oraingo honetan, BMfBren programa politikoa lehen aldiz aurkeztuko da Euskal Herrian.

Ekitaldian honako hauek parte hartuko dute: Heinz Fischer Austriako presidentearen Protokoloko eta Zientzia, Arte eta Kulturako kontseilariak, Mag. Diego Rainer eta Mag. Meinhard Rauchensteiner, bai eta Iberoamerika eta Kariberako BMfBren koreografia eta zinema ordezkariek ere, Amanda Piña eta Daniel Zimmermann, izango dira ekitaldian. Honako ekitaldi hau INTPA Austriako Nazioarteko Dantza eta Performance Sarearen laguntzari esker egingo da. INTPA Tanzquartier Wien zentroaren barne dago eta BKA eta BMei erakundeek finantzatzen dute.



## 'Helder'

Dantza

Cindy Van Acker, Romeo Castellucciren Inferno lanaren koreografoa, forma berri batekin dator, Helder, Stéphanie Baylerentzat berariaz sortutakoa. Lan honetan, dantzariaren gorputz margotu eta behartua formaren eta geldotasunaren presiopean jartzen du. Eta abstrakzioaren ertzeraino egiten du, Francisco Merinok sinatutako tentsio handiko soinu-paisaiatz inguratuta. Lana 'La Belle Scène Saint-Denis'-erako sortu zen (Avignon 2013), Myriam Gourfinkek proposatuta, Blanc-Mesnil Forumen zegoela.

### FITXA ARTISTIKOA

KOREOGRAFIA: Cindy Van Acker

INTERPRETAZIOA: Stéphanie Bayle

PARTE-HARTZEA: Cindy Van Acker

MUSIKA: Francisco Merino

ARGIZTAPENA ETA ZUZENDARITZA TEKNIKOA: Victor Roy

LAGUNTZAILEAK: Geneva Hiria, Genevako Kantoia, Pro Helvetia Arteen Kontseilu Suitzarra eta Loterie Romande

## 'Monoloog'

Dantza

Dantza bakarrizketa bat idaztea, norberaren bitartez soilik esan daitekeena esatea, norberaren bitartez soilik egin daitekeena egitea, norberaren bitartez soilik sentitu daitekeena sentitzea. Bakarrizketa dantza solobat baino barnekoagoa da. Espazio sakon batetik sortzen da, eta barrualdetik kanpoalderantz eraikitzen da, geruzaz geruza, bere mugak berridatzi arte. Bakarrizketak forma hartzen du pixkanaka, nortasun propioa bereganatuz. Pertsonatik aldentzen da, eta, beraz, hurkoak interpretatu dezake. Hitz-ekintza batek baino adierazle gutxiago izan, mugimenduak ebidentziarik gabeko zentzumena ukitzen du, eta dualtasun baten funts amankomuna gorde dezakeen lurraldea sortzen du. Askatasunez interpretatzeko ipuin barnekoia.

### FITXA ARTISTIKOA

KOREOGRAFIA ETA INTERPRETAZIOA: Cindy Van Acker

ARGIZTAPENA: Luc Gendroz

ERREALIZAZIO TEKNIKOA: Victor Roy

LAGUNTZAILEAK: Geneva Hiria, Genevako Kantoia, Pro Helvetia Arteen Kontseilu Suitzarra eta Loterie Romande.

### MAIATZAK 30

18:00

27'

Erakusketa Aretoa. -2 solairua

8€ / 



'Helder'



'Monoloog'

### MAIATZAK 31

20:00

21'

Auditoriuma. -1 solairua

10€ / 

## CINDY VAN ACKER

Suitza / Belgika

Dantza

Cindy Van Ackerrek 2 pieza aurkeztuko ditu, eta bien aukeraketak 3.2.1 topaketaren lan-ildoarekin dauka zerikusia. Helder aurkeztuko du erakusketa-gune batean (zuria) eta Monoloog gune eszeniko batean (beltza). Mugimendua ulertzeko bi era. Cindy Van Acker Flandesko Ballet Royaleko kidea izan zen Belgikan, Genevako Grand Théâtreekin bat egin eta Suitzan bizitzen jarri baino lehen. Ondoren, dantza garaikideak eskaintzen dituen esperimentazio-aukerengatik zuen interesa dela-eta, Philippe Saire, Laura Tanner, Noemi Lapzeson, Estelle Héritier edota Myriam Gourfink koreografoen lanak interpretatu zituen. Beste batzuen aginduetara lan egiteaz gain, Cindy Van Acker 1994az geroztik ari da bere lanak sortzen, eta 2002an Cie Greffe sortu zuen.



## 'Atlas Bilbao'

ANA BORRALHO & JOÃO GALANTE

Portugal  
Performance-Antzerkia

Mitologia greziarrean, Zeusek zerua sorbalden gainean eustera kondenatu zuen Atlas. Atlas ikuskizunak lanbide desberdinetako 100 pertsona biltzen ditu agertoki gainean. Lan honetan, Ana Borralhok eta João Galantek gizakion antolaketa sozialaren atlas bat eraikitzeko asmoa dute; gizakion errepresentazioa, jardunean dauden gizartean betetzen duten zereginaren bitartez. Pieza hau Joseph Beuys artistaren 'iraultza gara' eta 'Gizaki bat, artista bat' ideietan oinarrituta dago. Iraultza isila. Arteak gizartean zeregin aktiboa izan behar duelako usteak bultzatzen du antzezlan. Artea eta bizitza uztartzea. AlhóndigaBilbaon aurkeztuko duten lan honetan, 100 pertsonak parte hartuko dute, eta laborategi batean sortu zen aurretik.

Ana Borralhok eta João Galantek arte bisualak ikasi zituzten AR.CO.n. OLHO konpainian aktore eta sortzailekide ibili ostean, 2002an euren proiektu bateratuak sortzen hasi ziren, eta, 2004tik, hainbat herrialdetako nazioarteko jaialdietan aurkeztu dituzte beren lanak, adibidez, Frantzia, Suitza, Brasil, Finlandia, Arabiar Emirerri Batuak eta Japonian. Jimmie Durham ez-musikarien bandaren eta casaBranca elkartearen kide fundatzaileak dira.

### FITXA ARTISTIKOA

AZALPENA ETA ZUZENDARITZA ARTISTIKOA: Ana Borralho & João Galante  
ARGIZTAPENA: Ana Borralho & João Galante  
ARGIZTAPEN-AHOLKULARITZA: Thomas Walgrave  
SOINUA: Coolgate  
KOLABORAZIO DRAMATURGIKOA: Fernando Ribeiro eta Rui Catalão

MAIATZAK 30

20:00

70'  
Auditoriuma. -1 solairua  
Gaztelania eta/edo Euskara  
10€ /



## 'UNTITLED \_ I will be there when you die'

ALESSANDRO SCIARRONI

Italia  
Dantza

'UNTITLED. I will be there when you die' denboraren iraganari buruzko lana da, objektuak trebetasunez manipulatzeko arteari, hau da, malabarismoari buruzko gogoeta baten ondorioz sortutakoa: malabarismoa. Honakoa proiektu zabal baten bigarren atala da; proiektu horretan, Alessandro Sciarronik bilaketa proposatzen du ahaleginaren, jarraitutasunaren eta erresistentziaren bitartez. Lan berri honetan, objektuen jaurtiketak giza existentziaren hauskortasuna dakar gogora. Imajinario kolektiboan zirku mota honi lotzen zaizkion estereotipoak bastetzea eta hizkiuntza gisa arakatzea da idea.

Alessandro Sciarroni performerra, koreografoa eta zuzendaria da, eta background garrantzitsua dauka ikusizko arteetan eta antzerki-praktiketan. Bere lanak 20 herrialdetan antzeztu dira, dantza eta antzerki garaikideko zenbait jaialditan. Gaur egun, 'Will you still love me tomorrow?' izeneko ikerketa-proiektu handi batean ari da lanean; bertan, borrokaren, egonkortasunaren eta erresistentziaren kontzeptuak arakatzen ditu. 'UNTITLED. I will be there when you die' proiektu horren parte da.

### FITXA ARTISTIKOA

SORTZAILEA: Alessandro Sciarroni  
PARTE-HARTZAILEAK: Lorenzo Crivellari, Edoardo Demontis, Victor Garmendia Torija, Pietro Selva Bonino  
JATORRIZKO MUSIKA ETA SOINUA: Pablo Esbert Lilienfeld  
ARGIZTAPENAREN DISEINUA: Rocco Giansante  
BURU TEKNIKOA: Cosimo Maggini

MAIATZAK 30

21:30

50'  
Kulturen Ataria  
Sarrera dohainik

association pour la  
danse contemporaine  
genève

adc

# Master Class

Marie-Caroline Hominalek bere lanean baliatzen dituen lan kodeak partekatuko ditu Master Classean. 2 orduz, eraldaketaren gaiari buruzko esperimantazioa proposatuko du, eta gogoeta egingo du identitatearekin loturiko auziek materiala sortzeko moduz.

Master Class saioan 20 lagunek parte hartu ahal izango dute, 20 dantzari, koreografo edo dantzaren eta mugimenduaren arloko profesionalak. Saiora moztarokak, tresnak eta soinua egiten duten gailuak eramatea eskatzen da.

## 'BAT'

Dantza / Performancea

BAT / Beautiful Anonymous Tragedy / Bold Action Tool / Boobs Ass Tits / Barbie And Tony / Bien A Toi / Before Anal Time / Better Avoid Tigers / Beef After Tea / Bel Amour Tyrannique / Berlin Asphalt Town / Bite A Tongue / Bad As That / Belle Aphrodite Tigresse / Be Always There

'BAT' lanean, Marie-Caroline Hominal-ek kolokan jartzen ditu kamuflatzearekin, eraldaketarekin eta anonimatuarekin loturiko zenbait prozesu. Agertokian, boxeolari batek kontrapuntua egiten dio: boxeolariak, intentsitatea, eraginkortasuna, kontzentrazioa eta indarra irudikatzen ditu, eta MCH-ek berriz, zatiketa eta kaosa.

'BAT' mugimendu bizia da, gure belaunaldia. Ekaitza bezala zabaltzen den mugimendua. Biolentzia bihurtzen den energia, eguneroko bizitzan topatzen dugun energia.

—

### FITXA ARTISTIKOA

SORKUNTZA, ESZENARATZEA ETA  
KOREOGRAFIA: Marie-Caroline Hominal  
(MCH)  
ARTISTAK: Jérémie Canabate & MCH  
JATORRIZKO TESTUAK: Marvin Victor & MCH

ESZENOGRAFIA ETA JANTZIAK: MCH  
MUSIKA: Clive Jenkins & Jimmy Ohio  
ARGIZTAPENA: Jonathan O'Hear  
MAKINEN ERAIKUNTZA: Victor Roy

## 'Le triomphe de la renommée'

Dantza / Performancea

Backstage-ean, agertokiaren atzealdean, Marie-Caroline zain da, 'Le triomphe de la renommée' performancea ilustratzeko zain.

'Le triomphe de la renommée' ('Ospearen garaipena') Petrarkaren (1304-1374) 'I Trionfi' izenburuko sei eleberriko bilduma baten parte da; bilduma horrek bizitzako faseak deskribatzen ditu, bertuteak erronka bihurtuz: Ospeak Herio garaitzen du, baina Denborak eta Betierekotasanak azpiratzen dute.

—

### FITXA ARTISTIKOA

KONTZETUA, TESTUA ETA  
PERFORMANCEA: Marie-Caroline Hominal  
ZUZENDARITZA TEKNIKOA: Clive Jenkins

MANAGEMENTA: Stéphane Noël  
PRODUKZIOA: MadMoiselle MCH  
association – Geneva

## MAIATZAK 28

19:00

120'  
Bastida Aretoa  
-2 Solairua  
Ingelesa  
20 € / 

## MAIATZAK 29

20:00

60'  
Erakusketa Aretoa. -2  
solairua  
Ingelesa  
10€ / 

## MAIATZAK 30

ETA 31

17:00 – 22:20

Emanaldiak 20  
minuturik behin  
Azken emanaldia, 22:20an

Ikusle bakarrerako  
ikuskitzuna  
Zenbait espaziotan  
Ingelesa  
Erreserbatu ordua  
Infopuntuan  
(informazio gunea)  
4€ / 

prohelvetia



Nathalie Reholz©

'BAT'



'Le triomphe de la renommée'

## MARIE-CAROLINE HOMINAL

Suitza

Marie-Caroline Hominalék Zurichen eta Londresen egin zituen dantza ikasketak, Schweizerische Ballettberufsschule eta Rambert School of Ballet and Contemporary Dance eskoletan, hurrenez hurren. François Chaignaud, Clive Jenkins eta Cristian Vogel artistekin lankidetzan jardun ohi du, besteak beste; eta emanaldiak egin ditu goren mailako koreografo eta taldeekin, hala nola, Blanca Li, Gisèle Vienne, Gilles Jobin, La Ribot eta Marco Berrettinirekin.

Bestalde, Marie-Caroline Hominalék Master Class saio bat emango du, dantzaren eta mugimenduaren arloko profesionalentzat, eta, ondoren, bere bi obra aurkeztuko ditu: 'BAT' eta 'Le triomphe de la renommée' tête-à-tête performancea, banakako publikoarentzat garatzen duena.



## 'liquidMaps'

liquidDocs

Instalazioa. WIP proiektua

MAIATZAK 29, 30  
ETA 31

11:00-23:00

Kulturen Ataria  
(‘Polifemoren begia’)  
Sarrera dohainik

LiquidDocs-en proiektuak zubi modura dihardu nazioarteko topaketen, artisten, haien obren eta denboraren artean, haiekin guztiekin elkarreraginean. Hain zuzen ere, 321 topaketaren edizioetan (3 edizio izan ditu) parte hartu duten obren eta artisten berri biltzen, dokumentatzen, gordailutzen, identifikatzen eta modu bisualean aurkezten du.

LiquidMaps.org HUB 2.0 bat da, eta haren xedea da nazioarteko kultura arloko eragile, entitate eta organismoak elkarrekin harremanetan jartzea, beraien arteko komunikazioa, lankidetzeta eta berrikuntza soziokulturala sustatzeari begira. Sareen sare bat da, beraz; nazioarteko elkarrizketarako campus bat, lan aukera berriak sortzeko; proiektuen eta joeren laborategi bat, sorkuntzaren, berrikuntzaren eta enpresen arloetan lotura sendoak eratzeko gaitasuna duena.

‘liquidDocs’ barnealdea girotzeaz eta sortzeaz arduratzen da, barnealde horri bizia emateaz eta topaleku modura eskaintzeaz. Bertan, kontsultarako guneta bat azaltzen eta garatzen da, Topaketako prozesu artistikoen garapenaren hainbat alderdiri buruzkoa.

## 'Polifemoren begia'

PLASTIQUE FANTASTIQUE

Italia, Alemania  
Arkitektura iragankorra

MAIATZAK 29, 30 ETA 31  
11:00-23:00

Kulturen Ataria  
Sarrera dohainik

‘Polifemoren begia’ AlhóndigaBilbaoren ekoizpena da. Ataria Ziklopearen haitzulo bihurtzen du, eta bisitariak, bidaiari galdu.

Intalazioa da, arkitektura pieza bat beste baten barruan, Begiari begiratzera, Begian sartzera eta haren barrualdea eta ingurua deskubritzera gonbidatzen duen eszena gogoangarria. Pertzepzio-bidaia, epika homerikoaren, esperientzia surrealisten eta Cortázarren bertsoen artean mugitzen den bidaia, 3, 2, 1 topaketaren eta AlhóndigaBilbaoren testuinguruan.

«So egiten didazu, gertutik so egin ere, gero eta gertuago, eta orduan ziklopearen jolasa hasten da, gero eta gertuagotik begiratzen diogu elkarri eta begiak handitu egiten dira, elkarren ondora hurbilduz, bata bestearen gainean jarriz eta ziklopeak elkarri begira ari dira (...)» Julio Cortázar: Rayuela, 7. kapitulua.

# 3·2·1 FORMA ESZENIKO BERRIEN NAZIOARTEKO TOPAKETA

‘3, 2, 1 Forma Eszeniko Berrien Nazioarteko Topaketa’ sortzaile eszeniko garaikideentzako programa da, AlhóndigaBilbaoren Zuzeneko Arteen programazio-ildoaren barruan. Zenbaki-joko horrek formatu berezi bati erantzuten dio: hiru edizio, hiru urte, amaiera bat. Betikotzeko asmorik ez duen denbora zehatzeko zikloa da formatu hori. 3 (2013), 2 (2014) eta 1 (2015) edizioetan, zikloa jaio, esperimentatu eta hil egiten da. Bertan, zenbait proposamen artistiko elkartzen dira, gaur egungo performancearen, dantzaren eta antzerkiaren gaineko kontzeptio berrikusiarekin. Elkarren artean eta bestelako arteekin lotzen diren hiru diziplina hauek beste era batera planteatzen dituzte hainbat gai, kontzeptu eta sinergia.

Lehenengo edizioan bezala, AlhóndigaBilbao proposamen artistiko hauen eragileentzako topagunea izango da **maiatzaren 26tik 31ra**. Sentsibilitate desberdinetako sortzaileek espazio berberetan eguneroko kontzeptuen ikuspegi eta berrikusketak proposatuko dituzte. Artean, zuzeneko artean, une horretan soilik ikus daitekeen horretan, finkatzen dute begirada, eta hori esperientzia bihurtuko da publikoarentzat. Helburua esperimentatzea, berritzea, kritikoa izatea, aurkeztea eta antzeztea da.

Sortzaile hasiberri zein ospetsuek ez-konbentzionalari buruz dituzten proposamenak egingo dituzte. Agertokiak eta formatuak aldatu egingo dira. Ikuskizun kolektiboak, idatzizko lanak, hamar minutuko proposamen artistikoak... daude. Live art, performance, antzerki, dantza, instalazio, espazio publikoetako esku-hartze eta arkitektura efimeroko kontzeptuek forma hartuko dute ikuslea benetako protagonista den topaketa honetan. Gauza berri guztiek dute lekua, errealitatea beste era batean hausnarrarazi eta ikusaraziko diguten proposamenetan. Edizio honek, bigarrenak, artisten hautaketa bat biltzen du, eta haien adierazpen artistikoekin lurreko gaiak zein estetikoak gaintzen dituzte.

‘3, 2, 1’ memorian galdutako leku bat da, denbora eta esperientzia bizi diren lekua. Galdera ugari dituen topagunea da, eta bertan pilatzen dira, artistaren eta ikuslearen erreakzioaren zain. Abiapuntua. Bidaia bat gure baitan eta hurbileko inguruan barrena. Leku komun bat, non denbora pitzatzen eta berriz osatzen diren paradigma nahasietan urtzen den, eta gure errealiterik hurbilena behatzeko eta antzemateko modu berriak sortzen diren.

‘3, 2, 1’ modu boluntarioan finkatzen da mugan, bazterretan, bere esentzia, forma eta berehalakotasuna aldarrikatzen duen leku sailkaezin horretan. Errealitatea eta fikzioa nahasten diren jokoa, non orainak hainbestetan ukatu zaion lekua aldarrikatu eta bere egiten duen.

Artistaren bidaia, bere bidaia pertsonala, bakarra, sorkuntzak osatzen duen labirinto horretan zehar, urte hauetan guztietan hainbat herrialde eta kulturatan bizitakoekin eskuratutako esperientziarekin, Bilbora heldu da, errutinarekin apurtzeko gonbit eginda, baita gure egunerokotasunetik harago joateko ere, eta, batez ere, egunez egun gurekin batera bizi diren eta aldiro, ia kasualitatez, gurutzatzen diren artisten artean konplizitatea sortzeko. Beraien ateak irekitzen dizkiguten eta gure memorian bizitzeko promesa egiten diguten ezezagunak.

‘3, 2, 1’ AlhóndigaBilbaoren Zuzeneko Arteen programazioaren barruan dago. Edukia topaketatik harago doa, adierazpide desberdinetako sorkuntza eszenikoaren inguruko dibertsitate eta lengoaiei ekiteko 2010. urtean zentroa ireki zenetik garatu izan den programazio egonkor baten bitartez.

Modu paraleloan, AlhóndigaBilbaok **‘MOV-S 2014’** hartuko du. Mugimenduaren, gorputzaren eta dantzaren praktiken inguruko profesionalen topaketarako eta hausnarketarako espazioa da. Mov-s Bartzelonako Mercat de les Florsek bultzatzen du, eta, Bilboko ediziorako, maiatzaren 26tik 31ra, 100 bat profesionalak ekingo diote ‘Artikulazioaren’ ideiari, hainbat helbururekin: programazio hedatuak gaitzen dituzten pentsamentu eta operatibotasun tresnak bilatzea; artistentzako ikusgarritasun-espazioa sortzea, eta eztabaida profesionalerako espazioa proposatzea.



Hedabide Laguntzaileak

www.alhondigabilbao.com

Kultura Bizia  
Den Tokia

**Alhondiga**  
Bilbao

ARTEA ETA  
KULTURA

2014KO MAIATZAREN 26TIK 31RA

# FORMA ESZENIKO BERRIEN NAZIOARTEKO TOPAKETA

# 3.2.1 + MOV-S

Informazioa eta sarreen sailmenta  
[www.alhondigabilbao.com](http://www.alhondigabilbao.com)  
[alhondigabilbao@alhondigabilbao.com](mailto:alhondigabilbao@alhondigabilbao.com)



Elisie Ansareo ©